

txintxarri



Andaluziaren erakusleiho

Semblante Andaluz elkarteak 21. Aste Kulturala aurrera eraman du Okendo plazan / 7

TXINTXARRI

Surrealismoan barrena sortu dute

Zorione Mendez Martin artistaren 'Animaltzen' sormen tailerrean parte hartu du herritar gazte talde batek / 4

**Basaundi bailarako
119 etxebizitza
birgaitzeko proiektua
bisitatu dute
politikariek / 2**

**Erraldoi eta
buruhandien topaketa
"ikusgarria" egingo
du LOZET elkarteak
bihar, hilak 19 / 3**

**Haur eta gazteen
kategoriako Euskadi
Literatura saria
irabazi du Harkaitz
Cano herritarrak / 5**

**Euskal Jaia aurrera
eramango du udalak.
Kultura sailak
antolatzen duen lehen
aldia izango da / 6**

**Lasarte-Oria Bai!
krosa zein Korrika
Festa lehiatzeko
atzerako kontaketa
hasi da herrian / 11**

**Ostadar SKTko
Gorengo mailako
taldeak ederki hasi
du denboraldia;
liderra da / 13**

Buenetxea

zatoz ospatzera!

KAFETEGIA-TABERNA

25. urteurrena



Pablo Mutiozabal kalea, 2 • Tel: 943-36 95 08 • LASARTE-ORIA

Larunbata urriak 19

- 9:00: Irekiera
- 11:00-13:00: Haurrentzako jolasak
- 11:00-19:00: Tatoo flash day
- 13:00: Pintxopote berezia
- 13:00-14:00: Ttiriki Ttarraka trikitalariak
- 17:00-19:00: Haurrentzako jolasak
- 18:00: LOZET Buruhandi eta erraldoien geldialdia
- 19:30-21:30: Overloud taldearen kontzertua
- 19:00-21:00: Urdaiazpiko moztea
- 23:00-itxi arte: DJ Niko eta DJ Xabi pich.ing



Agustin Valdivia, Denis Itxaso eta Juan Carlos Abascal, Basaundi auzoko proiektua bisitatzen. LASARTE-ORIAKO UDALA



Hamabi ataritako 119 etxebizitza birgaitzen ari dira. TXINTXARRI

"Bizigarriagoa" izan dadin Lasarte-Oria

Basaundi bailarako etxebizitzak zaharberritzeko proiektua nola doan ikusi dute Eusko Jaurlaritzako eta Lasarte-Oriako Udaleko ordezkariak. 8 milioi euro pasatzeko aurrekontua dute hamabi ataritako 119 bizitoki birgaitzeko lanek

Txintxarri

Basaundi bailaran aurrera eramaten ari diren esku hartzea Berpiztu programaren eta Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (Next-GenerationEU) barruan dago eta 8.060.511,32 euroko aurrekontua du. Ia erdia NextGenerationEU funtsak finantzatzen du (3.359.040

euro) eta Eusko Jaurlaritzak (2.390.000 euro) nahiz Lasarte-Oriako Udalak (1.820.588,07 euro) ere egin dituzte ekarpenak. Zentzu horretan, bisita gidatu bat egin dute berriki Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburu Denis Itxasok, Lurralde Plangintzako eta Hiri Agendako sailburuorde Juan Carlos Abascalek eta Lasar-

te-Oriako alkate Agustin Valdiviak.

Etxebizitzak zaharberritzeko proiektuan herritarrek parte hartu izana nabarmendu du Itxasok: "Auzo eta hiriak birgaitzea ez da soilik espazioak eraldatzea, baizik eta komunitaten beharrak entzun eta horiei erantzutea". Horri lotuta, adierazi du "oso beharrezkoak" direla gisa horre-

tako esku hartzeak Euskal Autonomia Erkidegoen, etxebizitza bloke dezente dituztelako "60 urte edo gehiago". Alkateak, bestalde, nabarmendu du obra horiekin "irigarritasun unibertsa-la" lortuko dutela Basaundin: "Eraikin guztietan igogailuak jarri eta apartamentu blokeen efizientzia energetikoa hobetuko dugu". Halaber, balioan jarri du birgaitze egitasmoa, euren etxeetan bost hamarkada baino gehiago daramatzatzen bizilagunek aukera izango dutelako bertan bizitzen jarraitzeko, etxebizitzaren ezaugarriak XXI. mendeko beharretara egokitu. "Errotuta daude auzo honetan eta ez dute beste norabaitera joan beharko".

Hamabi eraikinetako 119 etxebizitza zaharberritzen ari dira, hau da, auzoaren %75. Igogailuak atariaren eta eskailera kaxaren kanpoaldean jartzea erabaki dute, goiko solairuetako etxebizitzak balkoiekin lotuta. Itxasok azaldu duenez, espazio publiko berriak sortu eta azpiegiturak hobetuko dituzte, ingurunea "irigarriagoa eta iraunkorragoa" izan dadin: "Lanean ari gara Lasarte-Oria

leku bizigarriagoa eta atsegina goa izan dadin".

Eremu tentsionatua

Basaundira egindako bisita baliatu dute erakundeetako ordezkariak Lasarte-Oriako Udalak egin berri duen tramiteari buruz hitz egiteko, hau da, udalerrira eremu tentsionatu izendatzearena. Dokumentazioa irailaren 26an bidali zioten Eusko Jaurlaritzari eta Itxasok jakinarazi du proposamena aztertzen ari direla Etxebizitza sailean: "Gehienez hiru hilabete izango ditugu Lasarte-Oria eremu tentsionatu izendatzeko". Hori gertatzen denean zenbait neurri hartu ahal izango ditu udalak: alokairuen prezioei mugak jartzea, esaterako.

Horrez gain, alkateak babes ofizialeko etxeak eraikiko diren eremuak eta udalak Eusko Jaurlaritzari utziko dizkion lur zatiak erakutsi dizkie Itxasori eta Abascal. "Kotxerasen alokairuko babes ofizialeko 180 etxebizitza ditugu, 180 etxebizitza tasatu", azaldu die. Gainera, egin dute Oriagaineko akordioa: ehun etxebizitza sozial eraikiko dituzte.

Udalari buruzkoak, WhatsApp bidez ere bai

Lasarte-Oriako Udalak WhatsApp kanal berri bat jarri du martxan, "udal administrazioa teknologia irigarri eta moderno bidez hurbiltzeko konpromisoa berretsiz". Zerbitzu hori gehitu du erakundearen komunikazio kanal berri gisa, tokiko informazioa iristeko azkartasuna eta irigarritasuna hobetzeko helburuarekin.

Horren bitartez, herritarrek udalarekin zerikusia duten albiste nagusiak jaso ahal izango dituzte eta Lasarte-Oriako aisialdi

eta ekimenen agendara sarbidea izango dute. Herritarrentzako "komunikazio bide zuzen gisa" ere funtzionatuko du, ia denbora errealean alerta eta zerbitzu publikoko informazioak emango baititu.

Agustín Valdivia alkateak azpimarratu du gobernu taldearen plan estrategikoaren barruan tresna horrek duen garrantzia: "Proiektu hau da udal hurbilagoa eta irigarriagoa baten aldeko gure konpromisoaren zati garrantzitsua. Herritarrek modu errazean eta azkar

informatuta egotea nahi dugu. WhatsApp kanal berri hau administrazio publiko eraginkorrago eta modernoago baterako urrats bat da."

Bestalde, Herritarren Partaidetzarako buru Nagore Duranek adierazi du kanalak "herritarrek komunikazio zuzenago baten eskaerari" erantzuten diola: "Lasarteoriatarrek informazioa berehala jaso nahi dute, konplikaziorik gabe. Kanal berri horrek ahalbidetzen du herritarrek modu errazean informatuta egon ahal izatea, inoren pribatutasuna arriskuan jarri gabe".

Kanalera batzeko azpiko QR kodea eskaneatu behar duzue sakelako telefonoarekin.



Erraldoi eta buruhandien topaketa "ikusgarria"

Gure herriko LOZET elkarteak eta beste bost konpartsak girotuko dute herria bihar, hilak 19, goizeko hamaiketatik aurrera: Andoaingo Lebiton, Donostiako Loretope, Villabonako Besamotza eta Faltzesko nahiz Caparrosoko taldeek

Txintxarri

"Denbora daramate erraldoien topaketa antolatu nahian. Ilusio handia egiten digu Lasarte-Orian lehenegoz egitea, ez da aurrez inoiz egin. Nafar leinukoak garenok txikitatik dugu zaletasuna eta niri neuri oso pozgarria zait". Hala adierazi du Agustin Valdivia alkateak biharko (hilak 19, larunbata) erraldoi eta buruhandien topaketa aurkezteko prentsurrekoan. LOZET Lasarte-Oriako Zezensuzko eta Erraldoi Elkarteak Blas de Lezo kalean duen lokalaren atarian aurrera eramanez jaien protagonista nagusiek lagunduta: Peio eta Ane, Ane eta Peio, erraldoi bikotea, eta herriarekin lotura duten buruhandietako bi, pilotua eta jockeya.

Taldearen izenean, Saioa Orotegik eta Elena Gomezek hitz egin dute eta jaiaren nondik norakoak azaldu. Bost konpartsa gonbidatu dituzte: Andoaingo Lebiton, Villabonako Besamotza, Donostiako Loretope, Faltzes eta Caparrosoko. Topaketa iaz gauzatu nahi izan zuten, baina baliabide faltagatik ezin izan zuten. Aurten lortu badute, herriko saltoki, txoko gastronomiko, boluntario eta udalari esker izan denez, eskerrak eman dizkiete, "be-



LOZETeko kideak eta udal ordezkariak, topaketa aurkezten. TXINTXARRI

raien laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke".

Ikusgarria izatea, helburu

Eguna Caddie plazan hasiko dute, 10:30ak aldera, Semblante Andaluzen txoko gastronomikoarekin bat eginez; "hamaiketako bat jarriko digute indarrak atzeko", zehaztu du Orotegik. Ondoren, 11:00ak aldera, kalejirari ekingo diote. Herrian barrena ibiliko dira taldeak eta 14:00ak aldera Okendo plazan amaituko dute. Bertan, konpartsen aurkezpena, pare bat dan-

tza elkarrekin, eta talde argazki bat egingo dute.

Indarberitzeko, Loidibarren frontoian bazkaria egingo dute. Parte hartzaileez gain, nahi duene ere aukera izango dute ortordua egiteko. Zizka-mizka batzuk, paella, postrea, ogia eta edaria; horrez gain, barrikotea ere izango dute. Txartelak salgai daude Artizar tabernan 15 euroan. Egun "polit" hori amaitzeko, zezensuzkoak hartuko du Kale Nagusia. "Eguraldia lagun badugu, topaketa ikusgarria izango da", aurreratu du azkena

Topaketaren egitaraua

Goizetik hasi eta iluntzera arteko egitaraua prestatu du LOZET elkarteak, Lasarte-Oriako Udalarekin elkarlanean. Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte ospakizunera bertaratu eta disfrutatzen.

Erraldoi eta buruhandien topaketaren programa


- **10:30ean**, topaketa parte hartuko dutenek hamaiketako egingo dute Semblante Andaluz elkartearen Atsobakar auzoko egoitzan.
- **11:00etan**, erraldoi eta buruhandien kalejira hasiko da. Herrian barrena ibiliko dira.
- **14:00ak aldera**, Okendo plazan bukatuko dute kalejira eta topaketa parte hartuko duten konpartsak aurkeztuko dituzte. Ondoren, elkarrekin dantzatu dute eta talde argazki bat aterako dute.
- **14:30ean**, herri bazkaria egingo dute Loidibarren pilotalekuan: zizka-mizka batzuk, paella, postrea, ogia eta edaria.
- **17:30ean**, arratsaldeko ibilbideari ekingo diote eta Buenetxea kafetegi-tabernaraino (Pablo Mutiozabal kalea, 2) joango dira, establezimendu horren 25. urteurrena ospatzera.
- **20:30ean**, zezensuzkoak ibiliko dira Kale Nagusian barrena.

ez izatea espero duen Gomezek, eta herritarrak gonbidatu ditu parte hartzera.

Handitzea, nahi

Jaietako zinegotzi Txus Alonsok gogoratu du udalak urteak daramatzala LOZETekin elkarlanean eta aurten 5.795 euroko diru-laguntza eman diela. Zehaztu du, topaketaz gain, San Pedro Jaietan parte hartze nabarmena duela eta antzezpen historikotik ere aritzen dela, Donostiako abuztuaren 31koa edota Oihan Vegak iaz egindako Bretxa musikalean, kasu.

120 bat irudi etortzea espero dute baita datorren urterako handitzea ere. "Hasi besterik ez da egin, hemendik urte batzuetara, Iruñeko edo Tuterako baina handiagoa izango da", aurreikusitu du alkateak.



Dantza egiteko geldialdiak Atsobakar etorbidean (2), Buruntza kalean (3), Kale Nagusian (4 eta 6), Zumaburu kalean (5) eta Okendo plazan (7) egingo dituzte. Loidibarren pilotalekuan (8) bazkaldu ostean, arratsaldean Buenetxea kafetegi-tabernara joango dira 18:00ak aldera, establezimendu horren 25. urteurrena ospatzera. LOZET ELKARTEA

batu txintxarri kanalera!

WHATSAPP KANALA

Lasarte-Oriaren berri, gertutasunez eta euskaraz, orain WhatsApp bidez ere bai!

batu



Udal liburutegian aurrera eramán du Zorione Mendez artistak 'Animaltzen' sormen tailerra. TXINTXARRI

Sortuz ikasiz, bakarka zein taldean, liburutegian

'Animaltzen' tailerra aurrera eramán du Zorione Mendez Martin artistak. Dozena bat gazte lasarteoritarrek parte hartu dute bertan, eta, arrisku egoeran bizi diren Euskal Herriko animaliei buruz ikasi dute. Sormen lan aberasgarriak egin dituzte

Txintxarri

Animaltzen tailerra aurrera eramán du Zorione Mendez Martin artista oriotarrak Lasarte-Oriako Udal Liburutegian. Bertan parte hartu dute dozena bat gazte lasarteoritarrek, eta sormen lan ederrak egin dituzte. Parte hartzaile bakoitza bere lantxoetan aritu da, baina talde lana ere egin dute. Izenak ere ipini dizkiete eurek marraztu eta margotutako animaliei, hala nola, *Pepito Grillo* edo *Katu sirena*.

Aurrera eramandako saio horren gainean, artistak TXINTXARRI-ri kontatu dio gaztetxoek ez dutela marrazteko, ebakitzeko ez bestelako sormen gauzatarako erreparrorik, hau da askatasunez egiten dutela iruditzen zaiena eta hala aritu direla udal liburutegiko saiora joandakoak ere. Gaineratu du "oso ondo" moldatu direla elkarrekin, "talde jatorra" izan dela eta, hortaz, saio "entretengarri bezain aberasgarria" izan dela. Horiez gain, aipatu tailerrari buruzko bestelako zenbait kontu ere azaldu dizkio aldizkariari; ondoko elkarriketan dituzue irakurgai.



Sormen lan ederrak egin dituzte partaide gazteek. TXINTXARRI

"Etxean genuen liburu batetik sortu zen tailer hau egiteko ideia"

ZORIONE MENDEZ MARTIN ARTISTA

Nola sortu duzu 'Animaltzen' sormen tailerra?

Hiruzpalau urte daramatzat tailer honekin lanean. Etxean genuen liburu batetik sortu zen ideia. Euskal Herrian arriskuan dauden animalien berri ematen du, eta hori begiratzeko hasita, ohartu nintzen animalia ugari daudela galzori egoeran. Horien guztien artean asko ezagunak ditugunak ere bai; agian, iruditzen ezagutzen ditugun horiek ez daudela arriskuan, baina hala daude. Gauzak horrela, pentsatu nuen gaia lantzeko zerbait egin behar nuela; hori bai, lanketa sormenetik bideratu nahi nuela argi nuen.

Eta 'Animaltzen' izena nondik dator?

Izenburuari dagokionez, berriz, gizakitik animalia bihurtzerako salto hori iruditatzeko izen aproposa iruditu zitzaidan, nahiz eta gizakiok animaliak garen. Lerroburu horrek ematen dit, gainera, surrealismoarekin jolasteko aukera, irudi berean ikusten baititugu gizakion atalak, eta baita animalienak dituzten izakiak marraztuta. Hori da, nolabait, estetikorik ikusita.

Lasarte-Oriako saioan gazteek parte hartu dute. Publiko horri zuzenduta dago tailerra?

Publiko zabalari zuzenduta dago. Donostiako Tabakalera egin nuen, adibidez, helduentzako saio bat, eta gaztetxoekin ere egin ditut hainbat, liburutegietan eta bestelako zenbait espaziotan.

Asko gustatzen zait tailer hau, eta iruditzen, badela betikoez gain, gure inguruan bestelako zein animalia ditugun ikasteko modu bat, hegaztiak, adibidez. Tailer honen bitartez horien ezaugarrien batzuk barneratzen badituzte, primeran. Gazte zein helduei, adibidez, zein hegazti ezagutzen dituzten galdetzen diedanean, ohikoan-edo



ZORIONE MENDEZ MARTIN

aipatzen dituzte, baina ez dakite horiek identifikatzen, ezta horien gaineko askoz datu gehiago ematen ere.

Nola antolatzen duzu tailerra?

Zortzi edo hamar animalia aukeratzeko ditut eta fotokopiatan eramaten dizkiet parte hartzaileei. Horien artean bakoitzak estetikorik gehien gustatzen zaiena aukeratzeko du, eta animalia horren afixak dakarren bere gaineko informazioa irakurtzen du, hala nola, izena, zein neurri duen, zein den bere habitata, zer egin dezakegun bizi duen arrisku egoera horretatik ateratzeko, eta abar.

Fotokopia horietatik aukeraturako animalien atal bat kopiatu edo kalkatu egiten dute gero, adibidez, hankak edo mokoa, isatsa edo hegala, edo dena delako zatia. Hortik aurrerakoa, aldiz, parte hartzaile bakoitzaren sormen lana izaten da; poliki-poliki joaten dira gehitzen beste gorputz atal batzuk, azkenerako, bakoitzak bere animalia osatu duen arte. Horrela egin dugu udal liburutegian aurrera eramán dugun azken saioan ere. Eta surrealismoa ere lantzen dugunez, sortu dituzte, esaterako, lau hankako edo hiru begiko izaki bizidunak.

Fanzinea –animalien irudiak eta informazioa dakarren fotokopia sorta–, gainera, etxera eramán dute, agertzen diren animalia guztien gaineko informazioa irakurtzeko aukera izan dezaten.

Euskadi Literatura sari bat, Harkaitz Canorentzat

Haur eta Gazte Literatura kategorian gailendu da, 'Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez' (Erein) lanarekin. Gisa horretako laugarren aintzatespena izan da idazle lasarteoriatarrentzat. Azaroaren 21ean jasoko du saria, Gasteizen

Txintxarri

Harkaitz Cano lasarteoriatarrek laugarrenez jasoko du Euskadi Literatura sari bat. Haur eta Gazte Literatura kategoriakoa emango diote aurten, *Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez* (Erein argitaletxearekin argitaratu du) album ilustratuagatik. Modalitate horretako epaimahaiak balioan jarri du Canoren lana: "Liburutegiei omenaldia egiten die eta literaturaz harago, heriotza, maitasuna, senitartekoen harremanak eta beste horrenbeste gai unibertsal jorrazten ditu, protagonistaren bizitzatik abiatuta". Edizioari dagokionean, epaimahaikideek azpimarratu dute "paregabea" dela "kontakizunaren irakurketarako eta ilustrazioen kontenplaziorako". Isabel Herguera zinemagile donostiarrak ilustratu du liburua eta Fernando Bernues-en antzezlan batean oinarrituta dago.



Harkaitz Cano (eskuintetik, bigarrena), bere liburua eskuetan. IREKIA

Euskarazko Literatura eta Literatur Lanaren Ilustrazioa ataletako sariak nortzuk irabazi dituzten ere jakinarazi dituzte Eusko Jaurlaritzako ordezkariak. Jon Gerediagaren *Zeru-lurren liburua* eta David de

las Herasen *Campos de Castilla* lanak aintzatesi dituzte, hurrenez hurren.

Euskadi Literatura sariak azaroaren 21ean jasoko dituzte irabazleek, Gasteizko Artium museoan egingo duten ekitaldian.

EDUKI BABESTUA



"Gaizki sentitzen den edonor" laguntzeko gogoz daude Idoia eta 'Mango'. TXINTXARRI

Xumetasunetik esku hartzen

Antxota kaleko 1. zenbakiko atarian. Tinbrea jo eta berehala ireki du atea Idoia Artuzamona Zurutuza gizarte hezitzaile eta zabaldu berri duen Xume gizarte eta hezkuntza espazioaren sortzaileak. Harre-eragitea bizkorrago atera da *Mango*, egunerokoan bidelagun duen bulldog frantsesa. Atzera-erago dago Idoia, ate ondoan, iritsi berriari mimoz atondu duen gune "goxo, lasai eta irekia" erakusteko prest: "Ezinbestekoa iruditzen zait hona etortzen diren pertsonak eroso sentitzea".

Bi hamarkada daramatza Idoiak gizarte hezitzaile gisa lanean eta pasioz hitz egiten du bere ogibideaz. Esku hartzeak egin ditu orotariko arazoak (indarkeria eta abusuak, dolua, eskola jazarpena, autoestimua arazoak...) dituzten haur, nerabe eta gurasoekin. Zentzu horretan, ezinbestekoa iruditzen zaio prebentzio lana egitea eta lanean ahal bezain laster hastea, egunerokoan "uste baino ohikoagoak" diren egoera horien ondorioak "larriegiak" izan baino lehen. "Gaizki sentitzen den edonor, kasua edozein izanda ere, etor dadila laguntza eskatzera eta lagunduko diot egoera bideratzen".

Eta nola egiten du lan Idoiak? Ba, ireki berri duen zentroaren izenak ongi dioen bezala, xumetasunetik eta bi hamarkada hauetan pilotutako esperientzia oparotik. "Helburua da esku hartzeetan benetan garrantzitsua eta oinarritzkoa denari kasu egitea: haurrei, nerabeei

eta haien zailtasunei zein ahalmenei zuzenean begiratzen diet, zer behar duten ulertzeko". Horri lotuta, gizarte hezitzaileak nabarmendu du "irekita" dagoela "edozer" egiteko, betiere laguntza behar duten pertsonekin aurretik adostuta.

Baliabide ugari

Lehen deskribatutako espazio goxo horretan hartzen ditu Idoiak bereganatu jotzen duten pertsonak. Horrek ez du esan nahi, hala ere, esku hartze osoa bertan egiten duenik: "Beharrezkoa bada kalera atera gaitzke paseo bat ematera eta beste toki batzuetara mugitu, laguntzen ari naizen pertsonarekin konfiantzan".

Erabiltzen duen metodologiaren barruan baliabide eta ekinbide ugari ditu Idoiak: gorputza, artea, musika, natura... eta animaliak ere bai, batez ere, *Mango* bera. "Ustedut animaliak gai direla bizitzan zehar ulertu, sentitu eta adierazi behar dugun hori transmititzeko, irakasteko eta garrantzia emateko".



ESKUTITZA

ASUNAK LASARTE-ORIAKO GAZTE TALDE FEMINISTA

Barne lanketan aritzeko erabakia

Lasarte-Orian 2020. urtean gazteok praktika feministak aurrera eramateko helburuarekin sortutako taldea da aSUnak. Herrian zegoen hutsuneari erantzunez, urte hauetan hainbat ekintza eraman ditugu aurrera barnera zein kanpora begira: feminismoak zeharkatzen dituen gaien inguruko formakuntzak, Martxoak 8 edo Azaroak 25 egunetako manifestazioak, solasaldiak, aisialdiko eskaintzak... Ekintza horiek herriko kuadrilla zein adin ezberdinetako gazte

feministak biltzeko eta sartzeko espazioa eskaini digute.

Urtero bezala ikasturte hasierarekin batera ekin diogu lehenengo bilerak egiteari eta bertan azaleratu zen idatzi hau egiteko beharra. Izan ere, momentu honetan taldeak batez ere barne lanketan zentratzeko erabakia hartu du. Esan bezala, urte hauetan herrian feminismoarekin lotutako eragile erreferenteetako bat izan garenez, jakinarazi nahi genuen aurten ez garelako taldearen izenean herrira

begira ekintzak antolatzeko indarrarekin ikusten. Horregatik, dei egiten diegu gainerako herritar eta eragileei urtean zehar izaten diren egun seinatuak antolaketan parte hartzea. Hala ere, argi utzi nahi dugu taldea erabat irekita dagoela gurekin barne lanketan aritu nahi dutenentzat. Beraz, ostiraletan bi astetik behin egiten ditugun bileretan parte hartzeko gonbidapena zabalik dugu.

Jarraitu dezagun herrian feminismotik eragiten!



684 72 84 23
info@xume.eus
www.xume.eus

Antxota kalea 1 behe B-1
LASARTE-ORIA

INFORMAZIO
GEHIAGO,
XUMEREN
WEBGUNEAN



Txistulariak, herri kirolak eta dantzaldia, Okendon

Euskal Jaia ospatuko da etzi, hilak 20 Okendo plazan. Horretarako prestatu duen egitarauaren berri eman du Kultura sailak, eta, herritarrak baserritar janztera animatu ditu. Departamentu horrek antolatuko duen lehen aldia izango da aurtengoa

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kultura sailak eman du igande honetan, hilak 20, antolatu duen Euskal Jaiaren berri. Ainara Elicechea zinegotziak eta Juantxi Ugarte teknikariak iragarri dute egitaraua.

Departamentu horrek antolatzen duen lehen aldia izango da aurtengoa, izan ere, orain arte Euskara sailaren esku (Ttakun Kultur Elkartearekin elkarlanean) zegoen.

Okendo plazan izango dira antolatu dituzten ekimenak, eta herritarrak horietara joan daitezzen gonbidatu dituzte udal ordezkariak. Horrez gain, baserritar janztera ere deitu dituzte.



Kultura zinegotzi Ainara Elicechea. TXIN.

Hiru hitzordu

Goizean hasiko da festa. 10:00etan herriko txistulariak hara eta hona ibiliko dira herritarrak esnatu eta alaitzen. Bazkalostean, berriz, 16:30ean, herri kirolen ikuskizunaz gozatu ahal izango dute lasarteoriatarrek. Lau aiz-

kolarik eta bi harrijasotzailek parte hartuko dute, eta iparraldeko jokoen erakustaldia ere izango dela iragarri dute antolatzaileek. Gainera, gertatzen den guztiaren berri esatari batek emango du, zuzenean. Harrija-

sotzaileak *Okerra* harria jasotzen saiatuko direla ere aurreratu dute.

Festari amaiera emateko. Jaiari Jai taldearen eskutik erromeria izango da 18:30ean.

Afixa iragarlea

Euskal Jaia iragarri eta egitaraua ezagutarazteko antolatzaileek prestatu duten afixak irudi historiko bat erakusten du. 1934. urtean herrian aurrera eramandako Euskal Jai baten argazki bat da, Kutxa Fototekaren bitartez eskuratu dutela jakinarazi du Ugartek. Bertan ikus daitezke garai hartako herritarrak, baserritar janztita, Hipodromo inguruan.

HERRITARRAK BASERRITAR JANZTERA DEITU DITUZTE JAIAREN ANTOLATZAILEEK

Memoriatik sortzen dutenen bizipenak ezagutzeko saioa

Sorkuntza memoriatik izenburupean, Emakume Sortzaileen II. Jardunaldia egingo du Ihitten elkarteak hilaren 23an, asteazkenarekin, Antonio Mercero aretoan, 18:30etik aurrera. Eragile horretako kideek aurreratu dutenez, hiru emakume gonbidatu dituzte, Nagore Legarreta argazkilaria, eta Fanny Alonso eta Maialen Porroy Intxausti diseinatzaileak, eta bi lanen berri emango diete bertaratzen direnei, Legarretak *Ibaia ez da toki bat* aurkeztu du, eta Alonsok eta Porroyk, berriz, *Kotoi* ezagutaraziko dute.

Horren ostean, gonbidatuen eta bertaratuen arteko solasaldiari ekingo diote.

Hurrengo borobilean kulturartekotasuna jorratuko dute

Borobilean elkarteak datorren asteko ostegunean (hilak 24) aurrera eramango du hurrengo mahai ingurua, *Lasarte-Oria: harrera herria?* izenburupean; Oriarte Landaberri eraikinean izango da, 19:00etan. Kulturartekotasuna izango da saio horretan jorratuko duten gaia, eta, ohi bezala, alor horretan adituak eta arituak diren zenbait gonbidatu ekarriko dituzte solasaldira: Hernaniko Elkarte Multikulturala, Zaldibiako Lardizabal Herri Eskola eta Orioko Zarueta Herri Eskola.

Ikasturteko bigarren borobila izango da hurrengo astekoa; aurrenekoan herrigintza landu zuten.

'Gen-eroa' tailerra antolatu nahi dute Lasarte-Orian

Gure herrian "apustu bat" egin nahi du Emuna Aũka Psikologia Transfeminista Kooperatibak: generoari, normatibitate arauai eta egunerokotasunean erabiltzen diren espresatzeko moduei buruz hausnartzeko gune bat sortu nahi dute *Gen-eroa* tailerraren bidez. Azaroaren 14, 21 eta 28 eta abenduaren 5erako programatu dituzte 17:30etik 19:30etara izango diren doako lau saio, udalarekin elkarlanean.

Tailer hori printzipioz euskaraz aurrera eramanez nahi dute baina prest daude partaideen beharrezanetara moldatzeko. Izena emateko: 943-36 39 58, info@emunaauka.com eta [@emunaauka](https://www.instagram.com/emunaauka) (Instagram).



NEURE KABUZ
JEXUX ARTETXE

Askatasuna zertarako?

Pertsonok daukagun libertate antsia onbideratu beharraz ohartarazi gintuen Lourdes Iriondok. Kanta berean, guretzat nahi dugun askatasunaren jabe izaten ba ote dakigun kezkatuta agertu zen. Bat gatozke kantariarekin agertzen duenean inolako mugarik gabeko askatasun gosea ase nahi izatea dela erabakirik errazena, baina horretatik ezin letorkigukeela guztiontzat zor den ongia.

Zerbaitenganako antsia zentzugabeko desioa da, gose instintiboa, elkarren arteko bizikidetzari inolako begiramenik egiten ez diona. Bakarka bizi izan bagina bezala jokatzeko litzateke, gizaki bakoitza bere-berean gotorturik. Baina, gizartean bizi gara elkarren mendeko garelako. Eta bakarkeriazko egoera batean isolaturik bizi nahi duenak ez du hartu nahi besterengano obligaziorik. Horrela jokatzeko duenak, jakina, ezin espero dezake beretzat nahi dituen libertate eta eskubideekin besteez ere arduratuta sentitzea.

Libertatea, ordea, ez da lotura guztietatik askatzea. Zertarako behar den askatasuna galdetzen duenean, lagun hurkoa leialki maitatzeko behar dela aldarrikatzen du Iriondok. Leialtasuna ardurara, konpromisua, obligazioa da. Beraz, harreman loteslea. Libertatearen jabe izateak ondokoekin lotu egiten gaitu. Edo, beste modu batera esanik, haurridegoak sortzen dituen loturak askatzaileak liriateke. Gizakiari legozkiokeen eskubideak, bete beharreko obligazioen antzera, bakarrik gizataldean gauza baitaitezke.

Lourdesen abestia 1968koa da. Ez dugu garaia ahaztu behar. Orduan igaro zuen ETAK gizabidearen marra gorria, eta heriotzaren zabaltzaile amorratua bihurtu zen, orduetik aurrera berebiziko tragedia utziz. Herriaren askatasunaren izenean, bere bozemaileek esan ohi zuten. Iriondok, orduan, ozen kantatzen zuenak bidez-kotasun osoa ukatzen zion jarduera armatu horri. "Libertatea ez da herrien jostailu... Askatasuna bakerako, ez bengantzako, ez hiltzeko, askatasuna maitatzeko, gizaki guztien onerako". Memoriaren egunean, azaroaren 11n, horixe abestuko dugu, osteria.



TXINTXARRI

Ordu luzez zizelkatutako lanak

Zurmailu Zurlanketa Elkarte kideek eta udal ikastaroetako kideek egindako lanak ikusgai daude Antonio Mercero aretoan. Igandera arte (hilak 20) izango dute herritarrek 50 piezatik gora dituen bilduma ikusteko aukera: astegunetan, 11:00etatik 13:00etara eta asteburuetan, berriz, 18:00etatik 20:30era. Tamaina eta forma askotarikoak dute: handiak, txikiak, erabilgarriak, apaingarriak... baina ikusgarriak dira denak. Ezjakina denak ere badaki egur zati batetik halako irudia ateratzeko egin beharreko lana ez dela makala, ezta trebezia ere. Hilabetetan luzatu den zereginaren emaitzak dira, baten bat oraindik amaitu gabea.



Lourdes Motiñok (oholtza gainean) Fit Gipsy Dance eskola eman zuen. TXINTXARRI

Okendo, Andaluziako kulturaren erakusleiho

Hiru egunez, ohi bezala, andaluziar kulturaren erakusgarri onenak ekarri dizkie herritarrei Semblante Andaluz elkarteak. Nahi izan dutenek aukera izan dute hartan murgiltzeko eta guneak izan duen itxura ikusi besterik ez dago, erakarritakoak asko izan direla

Maitane Aldanondo

Laburbilduta, hilaren 11tik 13ra dantzaz dantza ibili zirela esan liteke; baina horrek kanpoan utziko lituzke Semblante Andaluzen 21. Aste Kulturalaren beste osagai batzuk. Flamenkoa, sevillanak, runbak, kanta eta dantza ezinbestekoak dira, beti presente daude eta denek espero dute. Baina baita edatekoa

eta jateko goxoa ere, hitzaldiak, jolasak eta hizketarako leku atsegina. Hori dena izan zen ere Okendo plazako karpan.

Askok izan ziren egunetako tarteren bat (edo batzuk) bertan pasatu zutenak. Musikak arreta piztuta bertaratu eta dantzara animatu zirenak, edo hala zebiltzanez begira gelditutakoak. Pintxo-potea, Duende taldearen dan-

tza emanaldia eta ohorezko ardoa izan ziren lehen txanpan, eta dantza herrikoiarekin heldu ziren Overloud taldearen kontzertura. Gau luzearen ondoren, gogo berearekin heldu zioten larunbatari. Besteak beste, Rosa Rubio idazleak *Un cuento de hadas para la menopausia* liburua aurkeztu zuen eta Amaya Gonzalez Caballerok runba flamenko eskola eman



Jaki goxo ugari dastatu zituzten Aste Kulturalera bertaraturatukoek. TXINTXARRI



Semblante Rociero koruaren kontzertua. TXINTXARRI

zuen. Gaueko eskaintza, berriz, Dame Venenorena izan zen.

Jolasak eta dantzak

Igandea jolasekin hasi zuten. Txikienei margotzeko gune bat atondu zieten. Buruhandien bisita izan zuten eta inguru guztian zeuden haurrak urduritu zituzten. Batzuek, negar, beste batzuek, barre; baina gehienek korrika egin zuten pertsonaiekin jolasean, maskurien kolpeak jaso bazituzten ere. Giroa pixka bat lasaitu zenean Duende taldearen emanaldia iritsi zen. Beroketa moduan edo, eszenario aurrean, lagunekin dantza pixka bat egin zuen laukoteak.

Gunea hustu eta herri bazkarrirako dena prestatzen joan ziren.

Goizean zehar txoko batean prestatutako paella jan zuten 90 bat lagunek. Pixka bat kosta zitzaizen banaketa nola egin erabakitzea, baina hori argituta, azkar batean banatu zituzten anoak. Bakoitzak zegokiona jaso zuen, aurrez txartelak emanda. Bazkal ondorengo lehen hitzordua, Fit Gipsy Dance eskola izan zen. Lurdes Motiño irakasleak argitu zuen dantza terapeutikoa dela, flamenkoa eta errehabilitazio mugimenduekin osatua, "gorputz, adimen eta arimarentzat onuragarria". Animatu zen taldetxoarentzat hala izan zen, ezin esan; bai, ordea, ondo pasatzen ari zirela zirudiela. Eta hori nahikoa ez balitz, gorputza mugitzen jarraitzeko beste aukera bat izan zuten dantzaldian.

Kanta eta kontu artean, Abelardoren bizitza

Haatik konpainiak 'Ur bizitan' dantza ikuskizunaren azken emanaldia udalerrian egingo du, hilaren 26an

Txintxarri

Banda Bi taldeak *Abelardo Mon Amour* ikuskizunaren emanaldia egin zuen hilaren 12an Manuel Lekuona Kultur Etxean. Antzerkia eta kontzertua batzen dituen obrak, Abelardo goitizena zuen

lagun taldeko baten bizitza gorabeheratsuko pasarteak kontatzen ditu. Maitasun harreman baten amaieratik abiatuta, batetik, hiru aktorek elkarren artean hizketan zenbait egoera epiko-ganberro gogoratu zituzten,

eta bestetik, musika taldeak hamaika abestiren bidez haietan sakondu, istorioaren haria osatuz. Soul, blues, rantxera, euskal musika... Doinu alai eta biziak osasun mentala eta bizitza barkadadean bizi dutenak ardatz dituen kontakizuna girotzeko.

Bestalde, Haatik konpainiak jakinarazi du gure herrian egingo duela *Ur bizitan* dantza ikuskizunaren azken emanaldia. Kultur etxeko auditorioan izango da hori ere, 26an, 20:00etan. Sarrerek 6 euro balio dute.



Banda Bi taldearen emanaldiaren une bat. TXINTXARRI



Irudi engainagarriak

Beheto zatitxo hauen artetik erdiak goiko irudi handitik hartuta daude, eta beste erdiak engainagarriak dira. Bereiz itzazu.




Zenbakia

Bide batez, zenbat arrautza ageri dira irudi handian?



ZortziKoa

Aurki itzazu errenkada baten eta bestearen arteko aldeak. Zortzi dira guztira.




Oiloek ez bezala, hegazti hauek hegan egiten dute, eta udazkenean Afrikara joaten dira, antzaren antzean, toki epelagoen bila. Migrazioan bata bestearen atzetik joaten dira askotan. Ba al dakizu zer hizki osatzen duten zeruan?

A V W T Y U

Handienetik txikienera


Ordenatu ahate hauek handienetik txikienera (1etik 8ra zenbatu, hurrenez hurren).



Margotu


Pareak bai!

Txita hauetarik gehienek bikia dute, batek izan ezik. Eta hirukiak ere badira. Aurkitu hirukiak eta parearik ez duena.



Mezu gordea

Eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta abesti bitxi bat agertuko zaizu. Beharbada buruz dakizu... Hizki-marrazki alfabetoa erabilgarri izango zaizu horretarako.



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	N
O	P	Q	R	S	T	U	V	X	Y	Z	.	,	!	?



Villalobos (gorriz), Herbeheretan jokaturako 3-daagse maratoian. PETER DONDERWINKEL

"Sufritzea egokituko zaigu hurrengo urteetan"

XIMON VILLALOBOS ALVAREZ IRRISTAKA TALDEKO PATINATZAILEA

Euskadi, Espainia zein nazioartean lehiatzen ari da herritarra Tolosako Iristaka taldearekin. Maila aldaketa izan du eta ikasketa urtea izan da beretzat

Nerea Eizagirre

Kasualitatez iritsi zen Ximon Villalobos Alvarez (Lasarte-Oria, 2005) herritarra abiadura patinajera. Txikitan patin batzuk erosi eta plazara ateratzen zen bere aitarekin. Oстера izotz hockeya egiten hasi zen eta egun batean abiadura patinaje proba bat ikustera joan zen. Hor sartu zitzaion jakin-mina eta Tolosako Iristaka taldera joan zen. Espainiako eta Europako hainbat probatan lehiatu da herritarra eta egun bere idoloen artean lehiatzen da. Azken urteetan Lasarte-Oria Bai! krosko podiumeko maila gorenean izan da patinajeko proban. Hare-

kin bildu gara bere kirolaren gainean gehiago jakiteko.

Abiadura lasterketetan zabilta, baina zertan datza?

Abiadura irristaketa atletismoaren antzekoa izan daiteke. 100 metrotik maratoira arteko distantziak ditugu. Proba luzeagoak ere badaude, baina horiek bereziak izaten dira.

"AURTEN MAILAZ ALDATU GARA ETA EMAITZAK EZ DIRA LEHENGO URTEKOAK IZAN"

Pista espezializatueta egiten dugu lehiaketa, Gipuzkoan ez dago horrelakorik. Baina Iruñean horrelako hiru edo lau daude.

Zein da zure probarik gustukoena?

Egiten diren probetatik Iristakako kideek gehien gustuko ditugunak eta hobekien datozkigunak iraupen luzeko probak dira, eliminazioa eta puntukakoa. Horiek dira entrenatzen ditugunak.

Bereziki gustuko ditugu errepideko zein zirkuituko probak ere. Gipuzkoan horrelako lasterketa batzuk topa ditzakegu udazkenean. Behobia-Donostia, Donostiako Klasika, Bergara, Lasarte-Oria bera eta inguruan egiten

diren beste maratoi batzuk. Bestela urruti joan behar gara lehiatzeko.

Iraupen luzeko probak aipatu dituzu. Nolakoak dira lasterketa horiek?

Txirindularitzako pistako proben antzekoak dira. 10 kilometrotako lasterketak dira eta bi itzulietatik behin kanpaiak jotzen du. Marra lehen iristen denak bi puntu lortzen ditu eta bat bigarrenak. Horrela ez da irabazle lehen iristen dena, baizik eta puntu gehien dituen. Eliminazioan ere antzekoa da, baina azkena iristen denak proba utzi behar du.

Nola banatzen da zuen denboraldia?

Udaberria bete daugu. Pistako eta zirkuituko txapelketa gehienak urtaro horretan izaten dira; otsailamartxoan hasi eta ekainean amaitzen dira. Europako Kopak, Espainiako txapelketak eta hitzordu garrantzitsuak orduan dira.

Europako eta Munduko probak ere iraila aldera dute etena. Eta irailetik aurrera gehiena errepideko probak dira. Beti dago trofeo askeren bat pistan izaten dena.

Indoor probak ere izaten dira. Horiek saskibalo kantxatan egiten ditugu. Ikusgarria den modalitate bat da eta Tolosan nahikoa praktikatzen dugu, azkenean pilotaleku batean entrenatzen dugu eta gehien gerturatu daitekeen estiloa indoorra da.

Etenik egiten al duzue?

Udan atseden hartzen dugu. Eten sakorik ez, azkenean bizioa hartzen diogu eta...

Udazkena lasaia goa da. Baina ez gara geldi egoten; asteburuero ari gara lehiatzen. Zaragozan egon gara; Liga nazionalako jardunaldia dugu hilaren 12 eta 13an eta Galiziara goaz asteburu osoa.

Orain, Behobiara arte ariko gara errepideko probekin eta geroago ere bai: Lourdesen (Frantzia) beste lasterketa bat egiten dugu.

Hainbeste proba eginda, zein izan da zure emaitzarik onena aurtan?

Aurtan mailaz aldatu gara eta emaitzak ez dira lehenengo urtekoak izan, inondik inora ere. Nik aurtan Liga nazionalan lortu dut emaitzarik onena. Indibidualki aurtan urte zaila izaten ari da; absolutu mailan gaude eta maila horretan 18 urterekin nabarmen-tzea zaila izaten da.

Taldeari dagokionez, bi urtetan jarraian igoera postuetan egotea lortu dugu eta polita izango da lehen mailara jauzi egitea. Gainera, jakinda entrenatzeko ez ditugula horrelako pistak Gipuz-

koan eta besteekiko nahiko desabantaila dugula.

Europako eta Munduko probak aipatu dituzu lehen. Zuek ere horietan parte hartzen al duzue?

Urtero Europako Kopako jardunaldi batzuetara joaten saiatzen gara. Ekonomikoki ezin gara guztietara joan, kristoren gastua da.

Lehenengo urtera arte gehiago disfrutatzen genuen emaitzak hobekoak izaten zirelako, adibidez, seigarren postu bat lortu nuen Lagosen, Portugalen. Aurtan berriro joan gara, baina munduko onenen aurka jokatu dut eta emaitza ez da bera izan.

18 urterekin 27 urteko batz bestekoak duen pelotoi batean sartzea ez da erraza, sufritzea egokituko zaigu hurrengo urteetan. Baina kristoren esperientzia da zeren zure idoloekin batera lehiatzen zara, Messi edo horien pareko izan daitezkeenekin. Aldamean dituzu irteeran eta haiekin zaude lehiatzen. Alde horretatik polita da horrelako txapelketetan parte hartu ahal izatea.

Eta proba horien guztien artean, Lasarte-Oria Bai! krosa egon ohi da. Podiumean zara azken urteetan, baina aurtan ez da egingo.

Pena da baina Donostiako Klasika da egun berean. Bi lasterketa egun berean izatea komenigarria ez zela iruditu zitzaigun eta gainera, Lasarte-Oriakora parte hartzaile gutxi joango ziren. Baina hurrengo urtean espero dugu egin ahal izatea.

Herritarrek animatuko al zenituzke patinajeko probatzen?

Leku bat baino gehiagotik iritsi zait jendeari kristoren ibidua ematen diola irristaka egiten dakien pertsonak ikustea. Jendeak beldur dio irristaketari eta esperientziarekin ikusi dugu, heldu hasita ere aukera dagoela irristaketaz gozatzeko. Eta orain ikastaro pila bat daude herri askotan. Horregatik jendeari animatzeko esango nioke. Jarduera fisikoa egiteko aukera ona da; ez daukalako korrika egiteak duen eragina belaunetan. Gainera, dibertigarria da.

Eta lehiaketaren bat ikustera gerturatu nahi badute ere, Tolosako indoor txapelketa egiten dugu abenduan. Hemen gertu goi mailako proba bat ikusteko aukera polita da. Errepidekoak, aldiz, Behobia-Donostia edo Donostiako 15 K. Klasika daude. Pena da aurtan Lasarte-Oriakoa ez egitea.

Elkarrizketa, osorik,
www.txintxarri.eus-en



Ostadar SKTko zein udal ordezkariak, babesleak eta Ormazabal loradendako kideak, aurkezpenean. TXINTXARRI

Kros herrikoiaeren atzerako kontaketa

27. Lasarte-Oria Bai! Krosa eta Korrika Festa aurkeztu dituzte. Ohiko ibilbidera itzuliko da lasterketa, baina ez da patinatzailek izango. Izen ematea martxan da webgunean eta hilaren 21tik 25era, Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da aukera

Txintxarri

Hilaren 27an, Lasarte-Oriako kaleak korrikalariz eta ipar mar txako kirolariz beteko da. Ostadar SKTko eta udal ordezkariak Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoaren 27. edizio eta Korrika Festaren 22.a aurkeztu eta aurtengo berrikuntzen berri eman dute.

Antolatzaileek aurreratu modura, 1 dortsala Ormazabal loradendako kideek eramango dute, bere mendeurrenarengatik.

Kros herrikoian parte hartzen duten kirolariek hamar eta bost

kilometrotako ibilbideak egin beharko dituzte aukeratutako modalitatearen arabera eta ohiko ibilbidea berreskuratuko du lasterketak. Agerraldian jakitera eman dutenez, "iaz, Allerruko zubian egin behar ziren zaharberritze lanak tarteko, azken uanean ibilbidea aldatu behar izan genuen. Lasterketa ondoren egindako balorazioan ohiko ibilbidearekin jarraitzea lehenetsi genuen".

Helduen ostean, 12:00ak aldera, Korrika Festaren txanda izango da. Sei maila ezberdinetan mila bat

haur eta gaztetxok lasterka egitea aurreikusten dute antolatzaileek.

Rollerrik ez

Donostiako 15 kilometroko Klasikak Lasarte-Oriako probarekin bat egiten duenez, patinatzaileen lasterketarik ez da izango. Askok kostata hartutako erabakia dela azaldu dute Ostadar SKTko kideek: "Gipuzkoako Irristaketa Federaziotik deia jaso genuen, roller batzuk ere jarri dira gurekin harremanetan, eta lasterketa ez antolatzea gomendatu ziguten. Erabakia hartzea kosta

zaigu, baina, azkenean, bertan behera utzi dugu. Baina datorren urtean rollerrak gure artean ikusi nahiko genituzke".

Horrez gain, kirol elkarteak aurreratu du bere gizarte izaera sendotzen jarraituko duela, *Fibromialgia aboratzeko* ekimenarekin bat eginez. Beñat Garcia herritarra fibromialgia gaixotasunari ikusgarritasuna emateko lanean ari da kirol erronka ezberdinak gauzatuz, eta, hilaren 27an Lasarte-Orian korrika egingo du. Horrez gain, ekimenaren produktuak saltzeko postu bat ere jarriko da Okendo plazan eta informazio orriak banatuko dira parte hartzaileen artean.

Izen ematea

Kros Herrikoiko izen ematea zabalik dago elkarteko webgunean eta hilaren 21etik 25era, biak barne, Manuel Lekuona Kultur Etxean ere aukera eskainiko du elkarteak, 17:00etatik 19:30era. Lasterketa bezperan, berriz, Michelin kirol gunean egin ahalko da inskripzioa, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era, baita lasterketa egunean ere, 09:00etatik 10:00etara.

Izena ematen duten guztiek kamiseta tekniko bat jasoko dute opari eta hilaren 25era arteko inskripzioek Lasarte-Oriako taberna, jatetxe, okindegi eta bestelako denek emandako oparien zozketetan parte hartzeko aukera izango dute, baita Reala, Bera Bera Eskubaloia eta Gipuzkoa Basket ikusteko sarrierak ere.

Korrika Festako izen ematea ere hilaren 21ean irekiko dute kultur etxean bertan. 7 euro ordaindu beharko dira eta trukean, kamise-

Erosketa txartelak, sari

Ostadar SKTko 2019an hasitako ohiarekin jarraituko du eta trofeoetarako aurreikusita dagoen diru kopurua herrian erosketak sustatzera bideratuko du.

Kros nagusiko lehenengo hiru sailkatuek jasoko dute erosketa txartela eta Aterpeko establezimenduetan erabili ahalko dituzte urtea bukatu aurretik.

Aterpea merkatarien elkarteko kideek begi onez hartu dute erabakia. "Uriko azken igandea berezia da Lasarte-Orian, eta hori Krosari eta Ostadari zor diogu. Aterpeatik oso eskertuak gaude ekimen honekin, tokian tokiko komertzioari ikusgarritasuna emateaz gain, gure lanari bultzada ematen diolako".

ta tekniko bana jasoko dute. Lasterketa amaitzean, aldiz, bestelako opariak izango dituzte.

Komertzioarentzat garrantzitsua

Udal ordezkariak lasterketak gure herriko komertzioetan eta ostalaritzan duen eragina nabarmendu zuten. Horregatik, Tratu On Bat! markaren bidez krosa lagunduko dutela jakitera eman zuten.

Ostadar SKTko eskerrak eman dizkie babesle, laguntzaile eta bolutario guztiei.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONAL I. MAILA

Texas Lasarte CF - Asl. Mundarro FKE B

Larunbata. 16:55. Michelin kirol gunean.

Ostadar SKT - Orioko FI B

Larunbata. 11:40. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN GORENGO MAILA

Ostadar SKT - Zestoa KB

Igandea. 15:05. Michelin kirol gunea.

JUBENILEN I. MAILA

Texas Lasarte CF B - Umieta KE B

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO K. M.

Ostadar SKT - Hernani CD

Larunbata. 18:50. Michelin kirol gunean.

KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT (neskak) - Arupe Chaminade CDDF

Larunbata. 15:10. Michelin kirol gunean.

INFANTIL HANDI

Ostadar SKT - Igeltegi de Donostia CF

Larunbata. 13:35. Michelin kirol gunean.

ALEBIN, AURRETIKO FASEA

Texas Lasarte CF - Antigua Luberrri KE A

Igandea. 09:30. Michelin kirol gunean.

ARETO FUTBOLA

III. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Gamon KE

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA

Eguzki Bodegas Ayesa - Antigua Luberrri B

Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.

INFATILEN MAILA

Eguzki Andatza Taberna B - Eskoriatza KE

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOIA

II. MAILA

Ostadar SKT - Hondarribia Ikasbasket

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Ostadar SKT - Hondarribia Ikasbasket

Igandea. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL PARTAIDETZA

Ostadar SKT Beltza Haundi - Aldapeta Maria Berdeak Haundi

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

Ostadar SKT Urdina Haundi - Decoramik ISB Haundi

Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Ostadar SKT - Eskolapio

Larunbata. 17:30. Maialen Chourraut kiroldegia.

PILOTA

GOMAZKO PALA, NAGUSIAK, 3. MAILA

Intza KE - Azk. Oteiza 1

Ostirala. 18:45. (2. partida) Loidibarren pil.

GOMAZKO PALA, NAGUSIAK, 3. MAILA

Intza KE - Beotibar 1

Ostirala. 18:45. (3. partida) Loidibarren pil.

ERRENDIMENDU TX., INF. 2. MAILA

Intza KE (Lasa) - Añorga

Ostirala. 18:45. (1. partida) Loidibarren pil.

JOSE FELIX SOLANORI OMENALDIA

Gazteen eta nagusien mailako neurketak jokatuko dira.

Igandea. 11:00. Loidibarren pilotalekua.

ERRUGBIA

OHOREZKO MAILA

Gipuzkoa Sortzen - Gernika

Igandea. 12:00. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA, I. MAILA

Gipuzkoa Sortzen - Urgoza Zornotza RT

Larunbata. 17:30. Miniestadioa, Donostian.

XAKEA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Taula Xake Klubeko kideak eta Lasarte-Oriako xake jokalariek maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldia lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Eibar / Irun.

AUTOMOBILISMOA

EIVISSA IRLAKO IGOERA

Aitor Manso herritarrek Eivissa Irlako iogera parte hartuko du.

Larunbata eta igandea. Eivissa. Balear Uharteetan.

GIMNASTIKA

IKASTAROA

LOKE antolatuta Polina Berezina gimnastak ikastaroa eskainiko du.

Igandea. Goiza. Michelin kirol guneko pil.

MENDIA

IBILBIDEEN EGUNA

Buruntzaldeko XVI. Ibilbideen eguna aurrera eramango dute.

Igandea. Goiza. Buruntzaldea eskualdea.

* Talde kiroletan zein pilotako hizordueta etxean jokatutako neurketak bakarrik argitaratu ditugu.

Presak, Hiru Hondartzetako krosetako podiumean

Lasarteoriatarrak bigarren postuan amaitu du Donostiako hiru hondartzak inguratzen dituen hamar kilometroko proban. Emakumezkoen parte hartzea gizonezkoena baino handiagoa izan da; Maite Salazar Badiola izan da herritarren artean lehen emakumea

Txintxarri

Lasarte-Oria Bai! krosa iritsi bitartean, herriko korrikalariak beste proba batzuetan ari dira lehian. Hiru Hondartzetako krosetan, esate baterako, 75 herritarrek parte hartu zuten Ondarreta, Kontxa eta Zurriola hondartzetan ertzetan egiten den lasterketan. Hilaren 13an, giro ederrean 3.474 parte hartzaileek 10 kilometroko ibilbidea egin zuten eta Jon Presa Herranz herritarra podiumera igo zen; bigarren iritsi zen helmugara.

Unai Iribar Gallardo arrasatearra eta Beñat Bengoetxea de la Iglesia hondarribitarra jarri ziren lasterketa buruan hasie-



Presak (gorritz), Hiru Hondartzetako krosetako podiumean. HIRU HONDARTZETAKO KROSA

ratik. Iribarrek Bengoetxea atzean utzi eta bakarka iritsi zen helmugara (31.19). Presak hirugarren postuan zetorrela Bengoetxea gainditu zuen eta 31.45 denborarekin zilarrezko postua eskuratu zuen.

Emakumezko gehiago

Aurten gainera emakumezkoen parte hartzea gizonezkoena baino handiagoa izan da Donostiako lasterketan. 1.742 emakume izan ziren Donostiako proba amaitu zutenak; gizonezkoak, aldiz, 1.712. Proba osoan lehen postuan mantendu ostean, Maria Lasa Galarraga irurarra (35.19) izan zen garaile emakumezkoen mailan. Herritarren artean, Maite Salazar Badiola izan zen azkarrena, 43.56.

Egun horretan bertan Donostiako Martutene auzoan El Pilar jaietako krosetan ere izan zen herritarrik lehian. Horien artean, Mikel Ubegun Lizasok zeharkatu zuen lehena helmuga hamar garren postuan eta Lasarte-Oria Talde Mendi Elkarteko (LOTME) Mertxe Casas Sanchez kidea emakumeen sailkapenean bosgarren izan zen, 34.26 eginda.

Olaso, podiumetik podiumera

Mari Carmen Olaso Espeso herritarra Gaztela eta Leon aldean izan da lehian iraila eta urriko asteburuetan. Palentzian, Valladoliden eta Burgosen distantzia ezberdinetako probetan parte hartu eta 55 urte baino gehiagoko mailako podiumera igo da herritarra.

Irailaren 29an, Valladolideko Maratoi erdian 01.42.54ko denbora eginez, garaile izan zen eta bi aste geroago, Burgosko 10 kilometroko proban ere gorenera igo zen (48.12).

Irailaren 22an, aldiz, Becerrilen (Palentzia) jokotutako Mariano Haroren 10.000ak proban hirugarren sailkatu zen, 51.32.

Buruntzaldeko bideak ezagutzeko hitzordua

Buruntzaldeko XVI. Ibilbideen Eguna ospatuko dute hilaren 20an. Bost ibilbide daude aukeran. Herrietan kontrol postuak izango dira eta autobus zerbitzua ere izango dute eskura parte hartzaileek. Aurten ez dute ur botilarik banatuko anoa postuetan

Txintxarri

Buruntzaldea eskualdeko landa ingurune naturala ezagutzeko aukera berria izango da hilaren 20an. Buruntzaldeko udalen kirol zerbitzuek Ibilbideen XVI. eguna antolatu dute. Lehiatzeko ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den jarduera fisikoa eta gure txoko naturaletan barrena ibiltzeko helburua duen ekimena aurkeztu zuten Usurbilen hilaren 11n.

Bost ibilbidez gozatu ahaliko dute ekimenarekin bat egin nahi duten herritarrek (ikus koadroa).

Horien guztien trazatu, profil eta distantziak erakusten dituzten panelak herri bakoitzean daude, baina sakelako telefonoan esku-



Buruntzaldeko kirol zinegotziak, ekimenaren aurkezpenean. USURBILGO UDALA

ragarri izan ahal dituzte herritarrek Navi Ruta aplikaziori esker. Horretarako tresna deskargatu eta ibilbide bakoitza aktibatuzko herrietan dauden paneletako QRa eskaneatu edo herri bakoitzari

dagokion kodea sartu behar da – Andoain, 125; Lasarte-Oria, 123; Usurbil, 126; eta, Urnieta, 124–.

Agerraldian ohartarazi zuten, aurretik bide hori erabiltzen zuten pertsonak berriro instalatu

Ibilbideak eta ezaugarriak

- **ANDOAIN – LASARTE-ORIA.** Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. Koloreak, urdina eta urre zaharra; 7,9 km-ko luzera du; oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.
- **ANDOAIN – URNIETA.** Koloreak, urdina eta berdea; 4,8km-ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.
- **ANDOAIN – USURBIL.** (Andatzatik barrena). Koloreak, urdina eta laranja; 14,9km-ko luzera du (luzeena da); oinez soilik egin daiteke eta mendiko oinetakoa beharrezkoa da.
- **LASARTE-ORIA – URNIETA.** Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9km-ko luzera du; oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.
- **LASARTE-ORIA – USURBIL – AGINAGA.** Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9km-ko luzera du (Santuenetik barrena Aginagako Mapil ingururaino); oinez edo bizikletaz egin daiteke eta kirola egiteko oinetakoa beharrezkoa da.

beharko dute, aplikazioan berrikuntza batzuk egin direlako.

Kontrolak eta autobusa

Kontrol postuak izango dira herri bakoitzean –Lasarte-Orian, Elizatze plazan– eta antolatzaileek aipatu zuten, aurten horietan ez da ur botilarik banatuko, beraz, nork bere botila eraman beharko du eta bideetan dauden iturrietan bete.

Ibilbideak egin eta etxera itzultzeko laguntza ere izango dute ekimenean parte hartzen duten herritarrek. Autobus zerbitzua egongo da 12:00etatik 14:40era. Buruntzaldeko herri guztietan izango du geltokia; Lasarte-Oriaren kasuan, Dorretxe (Euskotren) biribilgunean. Bertan gainera afixa bat egongo da zerbitzuaren ordutegiarekin.

Ostadar Gorengo mailako taldeak, hasiera ederra

Jon Iruretak zuzentzen duen taldeak ez du neurketarik galdu denboraldi hasieran. Lehen fasean goiko postuetan egoteko borrokatuko da Ostadar SKTko taldea eta horretarako neurketa guztiak lehiazte dute helburu jokalaririk urdin-beltzek

Txintxarri

Ostadar SKTko Gorengo mailako taldeak ederki hasi du denboraldia. Lau neurketa jokatu ditu Lasarte-Oriako taldeak, hiru garaipen eta berdinketa bat eskuratu ditu eta sailkapeneko buru da Euskalduna Andoaindarrarekin hamar puntura berdinduta.

Pozarren agertu da Jon Irureta taldearen denboraldi hasierarekin. Denboraldiaurrea hasi baino lehen kezka izan zituen arren, talde urdin-beltzak aurreko denboraldiko dinamika berekin jarraitzeak lasaitu duela adierazi du prestatzaileak: "Lehenengo urtean igoera lortzeaz gertu izan ginen. Denboraldia hastean kezka nuen; taldea nola egongo zen eta zein gogo izango zituen. Baina lehenengo urteko dinamika ari gara jarraitzen, berdin lehiazten ari gara. Maiatza-ekaina aldera, Aloña Mendiren aurkako neurketako talde berdina topatu dut. Gogo eta ilusio berarekin ari dira lanean".

Gorengo mailako entrenatzaileak urte bat dararama lanean



Ostadarreko jokalaria baloia kontrolatzen nahian. TXINTXARRI

taldearekin eta hori garrantzitsua dela nabarmendu du: "Oso garrantzitsua da elkar ezagutzea. Lehenengo urtean idea eta lan egiteko modu bat finkatu genuen eta aurretik ere horrekin jarraitzen dugu. Talde gaztea da, motibazio handikoa, ilusio handikoa, futbolaria gustuko dute borrokatzea gogoko dute eta sufritzea. Zentzu horretan taldea zoragarria da".

2023-2024 denboraldian Arrasateko taldearen atzetik gol gutxien jaso zituen taldea izan zen Ostadar; 24 gol egin zizkieten 30 partidatan eta aurretik lau nbeurketetan gol bakarra jaso dute: "Baloia gabe oso ondo egon ginen lehenengo urtean eta aurretik ere. Gure buruan lehenengo urteko dinamika hori jarraitzea egon behar du".

Baina jokalariek baloia jasotzean zer egin landu behar dutela argi du Iruretak: "Taldea aberastu behar dugu. Maila altuago bat lortu behar dugu gol gehiago sartu ahal izateko eta arrisku gehiago sortu edo aurkariaren atera errazago iristeko".

Pausoz pauso

Iazko lan onari esker, igoera lortzeko gutxi falta izan zuen Gorengo taldeak 2024ko ekainean, baina aurtengo denboraldian zehar faseka ikusten joango direla jakitera eman du prestatzaileak: "Abenduan lehiaketak non jarri gaituen ikusiko da eta Aste santu inguruan bost bat partida


Martin, nazioarteko lehiatan ederki

Jon Martin Vicente herritarrak ez du ligan asko jokatzetik izan azken jardunaldietan, baina nazioarteko lehiaketetan ederki moldatu da Real Sociedad taldean.

Irailaren 25ean, Europako Ligan debuta egin zuen Nizaren aurka. Lasarte-Oriako defentsa hamaikakoan atera zen zelaira. Herritarrak lan ederra egin zuen defentsan eta Realak bana berdindu zuen.

Hilaren 3an ere hamaikakoan izan zen Martin Anderlehen aurkako neurketan (1-2). 59. minutuan aukera ederra izan zuen buruz gola egin eta berdinketa eskuratzeko, baina langa gainetik joan zen.

Ligako etenarekin bat, hilaren 9tik 15era, Lasarte-Oriako jokalaria Espainiako 19 urtez azpiko selekzioarekin lehiatu izan da Bucarest, Errumanian. Alemania, Norvegia eta Errumania izan dituzte aurkari Nazioarteko torneoetan eta lehen bietan hamaikakoan izan da Martin; porrot, garaipen eta berdinketa bana eskuratu ditu taldeak.



REAL SOCIEDAD

geratzen direnean hitz egingo dugu. Igotzeko aukerak baditugu, hor jarriko dugu helburua. Badakigu maila zaila dela, edonork irabazi ahal diola edonori. Indarrak oso parekatuak daude".

Hala ere, fase erregularrean lehen postuen borrokan egon nahi du Gorengo mailako taldek eta horretarako neurketa guztiak lehiazte dute buruan: "Badakigu talde polita dugula, urte polita egiteko. Goiko postuetan egoteko taldea soberan dugula uste dugu. Beraz, neurketa guztiak lehiazte da xedea. Ongi lehia-

tuta noski, exigentzia maila bategin, gauzak ongi egiten. Orain gure helburua ez da igoera eta argi utzi dugu aldagelana. Gainera ez det uste helburu hori jartzea ona denik inorentzako".

Gainera, jarraitzaile eta zaleak ere esker ona agertzeko euren onena ematea du helburu taldeak: "Herriak ematen digun babesaren mailara egon nahi dugu. Herria gure atzean dugu; babesten gaitu eta neurketa guztietan gertu egon da etxean zein kanpoan. Eta oraingoz ongi ari garela esan daiteke".

Intza KEko eskuz binako bikoteak, lehiatu aurrera

Herriko elkarteko kideek Ezker Hormako txapelketako final zortzirena jokatu dute Azkoitia Oteiza 1en aurka

Txintxarri

Intza KEko eskuz binakako Nagusien 3 mailako bikoteak aurrera egingo du Ezker Hormako Gipuzkoako txapelketan. Jon Pello Artetxe, Haritza Diaz de Gereñu eta Peru Urdanpilleta kideek osatutako bikoak txapelketako sailkatu dira lehen fasean bigarren postuan amaitu ostean, final zortzireneko partida jokatu dute Azkoitia Oteiza 1en aurka. Hilaren 11n, sailkapena lortu zuen Intzako bikoteak; 22-5 garaitu zuten LAPKE 3. Neur-

keta laburra izan zen Loidibarren pilotalekuan jokaturakoa.

Etxeko bikotea nagusi izan zen neurketa osoan zehar. Artetxe eta Urdanpilleta serio jardun ziren kantxan eta sakearekin min egin ziren etxeko aurrelariak aurkariei. Lasarteoriatarrek errenta handitzen zutela ikusirik, LAPKEko kideak urduritu egin ziren eta akats ugari egin zituzten.

"Bikote gaztea zen. Aurrelariak lehen partida zuen maila honetan



LAPKEren aurkako neurketa. TXINTXARRI

eta jokoan nabaritu zen", adierazi dute Intzako kideek.

Gaztetxoak, martxan

Gomazko pilotako Nagusien 3. mailako Mendizabal-Urruzola bikoak ligaxkako jardunaldi berria izango du Beotibar 1en aurka.

Hilaren 18-20ko asteburuan, aldiz, pilota eskolako gaztetxoak

Jose Felix Solanori omenaldia

Hamarkada askoren ostean, Jose Felix Solano Menak Intza pilota eskolako ardura utzi zuen 2023-2024 denboraldi amaieran. Eskertza modura, hilaren 20an, igandearekin, herriko kirol elkarteak omenaldia egin nahi dio entrenatzaile eta arduradun postuan egin dituen urte guztiegatik.

Loidibarren pilotalekuan hasiko da omenaldia. 11:00etan, gazteen pilota partidak izango dira eta ostean, nagusien mailako pilotarien txanda izango da. Amaitzean sari banaketa berezia izango da eta talde argazkia.

Omenaldiari jarraipen ederra emateko, Intza elkarteko kide, omendu zein senideak mahaiaren inguruan bilduko dira bapoz bazkaltzeko.



TXINTXARRI

hasiko dira borrokan. Errendimenduko Gipuzkoako txapelke-

tari egingo diote aurre infantil eta alebinek.

ZORION AGURRAK



Haitz
Zorionak!!! Zure eguna ederki ospatuko dugu asteburuan familian eta lagun artean. Hamar muxu pottolo familia guztiaren partetik.



Maitane
Zorionak Memetane! Meme time bai ostiraleror!! Ea baten bat jabetzen den 22a identitate eskubidearen eguna ere badela Maider, osea Maialen, osea Maitane!!




Andrea
Kelokeeeee!!! 26 urte eta milaka bizipen, eta geratzen zaizkigunak! Zorionak familiaren partetik Andrea, muxu asko!! Mamajuanarekin topa egingo dugu, ezta?

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 18



Larunbata, 19



Igandea, 20



Astelehena, 21



Asteartea, 22



Asteazkena, 23



Osteguna, 24



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 18	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 19	GIL
IGANDEA, 20	GIL
ASTELEHENA, 21	ORUE
ASTEARTEA, 22	DE MIGUEL
ASTEAZKENA, 23	LASA
OSTEGUNA, 24	GIL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com
com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Katekesiko izen ematea

Lehenengo Jaunartzerako bidea egiteko haur katekesi saioak hasi dira. Arduradunek jakitera eman dute, lehen urtea duten edo saioetan parte hartu nahi dutenek hilabete honetako ostiraletan San Pedro parrokiako bulegoan izena eman behar dutela, 18:00etatik 19:00etara.

1974ko kintoak

Okendo plazan elkartuko dira 1974ko kintoak, hilaren 19an, 12:00etan. Ondoren, Abend garagardotegian bazkalduko dute.

ESKUTITZA

Eskutitza argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behe), txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

Jaio da!
Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali hauraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabiltza. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

ERRENTAN HARTU

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldian, garbiketara lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozen lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

BESTELAKOAK

EMAN

Pitbull arrazako txakurra oparitzen da. 9 urte ditu eta

baserrian ohitua dago; oso ona da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trikzikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomike-tarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarrikis doan dira herritarrentzat (au astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)

WhatsApp: 646 82 44 66

publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4

Tel.: 943-37 14 48 (104)

WhatsApp: 688 68 35 10

txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Egoitz Epelde, Ander Hazas, Aimar Hernandez, Nora Navarro, Xuban Urdalleta eta Nikola Iraola.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 18

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zurmailu elkarteok egurrekin egindako lanak ikus ditzakete herritarrek. Azken eguna iganda (hilak 20) izango da.

Antonio Mercero aretoa, 18:00etatik 20:30era.

HERNANI Hitzaldia

Buruntzaldeko Kontseilu Sozialistak *Zer gertatzen ari da parke eolikoekin?* solasaldia antolatu du. EH Bizirik eragilea gonbidatuko du. **Biteri kultur etxea, 18:30ean.**

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Lasarte-Oriako Ernaik ikasturtearen aurkezpen ekitaldia aurrera eramango du.

Xirimiri elkarte, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Slow Times Blues Band taldeak kontzertua emango du. Sarrera doakoa da.

Jalgi kafe antzokia, 20:00etan.

LARUNBATA 19

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Buenetxea kafetegi-tabernak 25 urte bete ditu eta urteurren berezi hori festa batekin ospatuko duela jakinarazi du:

09:00etan, irekiera.

11:00etatik 13:00etara, haurrentzako jolasak.

11:00etatik 19:00etara, Flash Day.

13:00etan, pintxo-pote berezia.

13:00etatik 14:00etara, Ttiriki Ttarraka eskolako ikasleen emanaldia.

17:00etatik 19:00etara, haurrentzako jolasak.

18:00etan, LOZET elkarteak antolatutako erraldoi eta buruhandi topaketako partaideek Buenetxean egingo dute geldialdia.

19:00etatik 21:00etara, urdaiazpiko ebakitzaila.

19:30etik 21:30era, Overloud taldearen kontzertua.

23:00etatik itxi arte, DJ Niko eta DJ Xabiren saioak.

Buenetxea kafetegi-taberna, 09:00etatik aurrera.



LASARTE-ORIA Topaketa

LOZET elkarteak erraldoi eta buruhandien topaketa egingo du Lebiton (Andoain), Besamotza (Villabona), Loretope (Donostia), Faltzes eta Caparrosoko taldeekin batera.

Bihar, hilak 19 (larunbata), herrian barrena, 11:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Topaketa

LOZET Lasarte-Oriako Zezensuzko eta Erraldoi Taldeak erraldoi eta buruhandien topaketa aurrera eramango du bost talde gonbidaturekin batera: Lebiton (Andoain), Loretope (Donostia), Besamotza (Villabona), Faltzes eta Caparrosoko.

10:30ean, hamaiketako egingo dute Semblante Andaluz elkartearen egoitzan.

11:00etan, taldeek kalejirari ekingo diote. Herrian barrena ibiliko dira.

14:30ean, bazkari herrikoia egingo dute Loidibarren frontoian.

17:30ean, arratsaldeko kalejira hasiko da eta Buenetxea taberna-kafetegian geldialdia egingo dute, 25 urte betetzen dituelako.

20:30ean, zezensuzkoak ibiliko dira Kale Nagusian barrena.

Herrian barrena, 10:30etik aurrera.

ANDOAIN Jaialdia

Buruntzaldeko Ernaik elkartasun jaialdia antolatu du.

11:00etan, Euskal Herria independentziara, zergatik eta zertarako? hitzaldia emango dute June lartzak eta Aritz Lopezek, gaztetxean.

14:30ean, bazkaria, Beheko plazan. Gero, bazkaloste musikatua izango dute Anuk eta Elene musikariek.

18:30ean, manifestazioa, Goiko plazatik, *Bat eginez independentziara* lelopean. Ondoren, trikipotea.

22:00etan, kontzertuak gaztetxean: Ameba, Pertz eta Rebel Noise taldeak ariko dira. Ondoren, saioa emango du DJ La Fulanak. **Andoainen, 11:00etatik aurrera.**

LASARTE-ORIA Topaketa

1974. urtean jaiotako herritarrak Okendo plazan elkartuko dira. Abend garagardotegian bazkalduko dute gero.

Okendo plaza, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Gastronomía

Saustatxo elkarteak VIII. Garagardo Azoka egingo du.

Saustatxo elkartea, 14:00etan.

LASARTE-ORIA Emanaldia

Maria Rubi artistak flamenko emanaldia egingo du. Sarrera doakoa da baina ikus-entzuleek gonbidapenak eskuratu behar dituzte leihatilan.

Kultur etxea, 18:00etan.

IGANDEA 20

LASARTE-ORIA Jaia

Euskal Jaia aurrera eramango du udaleko Kultura departamentuak. Herritarrak parte hartzera eta

baserritar janztera animatu dituzte udal ordezkariak. Hau da izango da egitaraua:

10:00etan, herriko txistulari taldeak diana egingo du herrian barrena.

16:30ean, herri kirolak, Bihurri taldearen eskutik: Lau aizkolarik, bi harrijasotzailek parte hartuko dute, eta iparraldeko jokoek erakustaldia ere izango da. Horren guztiaren berri esatari batek emango du, zuzenean. Harrijasotzaileak *Okerra* harria jasotzen saiatuko direla ere aurreratuko dute. Okendo plazan izango da erakustaldia.

18:30ean, erromeria, Jaian Jai taldearen eskutik, Okendon. **Herrian barrena, 10:00etatik aurrera.**

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema emanaldia aurrera eramango dute: *10 vidas*. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema emanaldia aurrera eramango dute: *Bitelchús, bitelchús*. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 23

LASARTE-ORIA Jardunaldia

Ihitten elkarteak Emakume Sortzaileen II. Jardunaldia aurrera eramango du, *Sorkuntza memoriatik* izenburupean. Aurreratu dutenez, hiru emakume gonbidatuko dituzte: Nagore Legarreta argazkilaria eta Fanny Alonso nahiz Maialen Porroy Intxausti diseinatzaileak. Bi ikus-entzunezkoren berri emango diete bertaraten diren herritarrei: Legarretak *Ibaia ez da toki bat* aurkeztuko du, eta Alonsok eta Porroyk, berriz, *Kotoi*. **Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.**

OSTEGUNA 24

LASARTE-ORIA Solasaldia

Borobilean elkarteak hilabete honetako saioa aurrera eramango du: *Lasarte-Oria: harrera herria?* Kulturartekotasuna jorratzen ari diren zenbait eragiletako kideak gonbidatuko dituzte solasaldira: Hernaniko Elkarte Multikulturala, Zaldibiako Lardizabal Herri Eskola eta Orioko Zaragueta Herri Eskola. **Oriarte Landaberri eraikina, 19:00etan.**

OSTIRALA 25

LASARTE-ORIA Zinema

Okendo Zinema Taldeak *Volveréis* filma emango du. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Gastronomía

Virgen de Guadalupe Extremadura Etxeko kideek afari alemaniarra egingo dute. Menua, hauxe: saltxitxak, txerri ukondo erdia eta postrea. Bazkide direnek 23 ordaindu beharko dituzte; ez bazkideek, berriz, 25.

Extremadura Etxea, 21:00etan.

LARUNBATA 26

LASARTE-ORIA Festa

Zabaletako auzotarrek "sorpresaz betetako" udazken festa ospatuko dute, egitarau honekin:

17:30ean, haur eta gaztetxoentzako altxorraren bila.

18:00etan, bertsolariak: Amaia Agirre, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze.

Ondoren, pintxo-potea. **Zabaleta auzoa, 17:30etik aurrera.**



LASARTE-ORIA Dantza

Haatik konpainiak *Ur bizitan* dantza ikuskizunaren emanaldia egingo du. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 20:00etan.

IGANDEA 27

LASARTE-ORIA Egitasmoa

PSE-EE alderdiko zinegotziak Zumaburu auzora joango dira bertan bizi direnen proposamen, iradokizun eta kezak entzuterako. **Andapa kalea, 11:30etik 13:30era.**

LASARTE-ORIA Zinema

Haurrentzako zinema emanaldia egingo dute: *Transformers One*. Sarrerek 4 euro balio dute.

Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Helduentzako zinema emanaldia egingo dute: *El 47*. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.



Lasarte-Oria Bai!

Kroseko zenbaki bereziak urriaren 25ean eta 31n txintxarri

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?




Deskontu bereziak herrikoentzat!

Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66



solaskide



Eta euskaraz egiten badugu?

Eman izena urriaren 25 baino lehen:

Ttakun Kultur Elkarte | LASARTE-ORIA

kultura@ttakun.eus 943-37 14 48 • 695 78 53 89



LEHIAKETA Lasarte-Oriako Toponimia

20 GALDERA + ERRONKA

URRIAK 14-20 (10 galdera)



URRIAK 21-27 (10 galdera)



URRIAK 28 AZAROAK 3 Erronka

2 SARI

2 PERTSONENTZAT LANDETXE BATEAN GAU BAT

2 PERTSONENTZAT MENU BEREZIA



txintxarri